Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Julian Murelaga Sustaeta Karoli*

*Lekeitio, Bizkaia*
*(1929-2021)*



Aurkibidea

## Biografia



1926. urtean jaio zen Kinkilla kalean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen; bost anaiatatik zaharrena da. Bere ama Karoli kondeareren neskamea zen eta anaia guztiek hartu zuten "Karoli" ezizena. Bere aitak 1932. urtean zabaldu zuen "Murelaga y Pagai" ontziola Arropainen. Bere aita gerra sasoian, Santoñara joan zen eta handik Ipar Euskal Herrira; hiru urte eta gero, ontziolara bueltatu zen. 13-14 urterekin bere etxeko gehienak ontziolan hasi ziren beharrean, eta aita hil zenean, beraiek hartu zuten horren kargu "Viuda de Murelaga" izena jarriz ontziolari. Azken urteetan "Murelaga ontziola" izena izan zuen. Hauxe izan zen Lekeition sortu zen azken ontziola eta baita zarratu zen azkena ere. Julianek urte askoan izan du "San Pedro Kilinkala" prozesioan parte hartzeko ardura.

## Zintak

### LEK-024

- **Proiektua**: Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-08-04
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

### LEK-025

- **Proiektua**: Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-08-04
- **Iraupena**: 49 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

# Pasarteak

## 1. Dirua amak gobernatzen zuen

- **Erref**: LEK-024/002
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:02:19. **Bukatu**: 00:04:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

**Laburpena**:
Nahiz eta neska-laguna 16 urterekin hasi, 28 urtera arte ez zen ezkondu. Bere amak gobernatzen zituen etxeko diru guztiak, eta ez zuen ezkontzeko dirurik.

## 2. Ontziolaren hastapenak

- **Erref**: LEK-024/003
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:04. **Bukatu**: 00:05:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Ontziolaren hastapenak azaltzen ditu. 1932. urtean jarri zuten martxan Arropaineko ontziola.

## 3. Gerra hasiera; aita ebakuatuta

- **Erref**: LEK-024/004
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:05:14. **Bukatu**: 00:07:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena**:
<p>Gerrako lehenengo bonbek ontziolan bertan harrapatu zuten; zelan bizi izan zuten kontatzen du. Egun hartan eurak baino ez ziren joan eskolara. Bere aita iparralderantz joan zen ebakuatuta, beste askorekin batera; hiru urtera bueltatu zen herrira eta berriro hasi ziren lanean.</p>

## 4. Gero eta ontzi handiagoak

- **Erref**: LEK-024/005
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:07:28. **Bukatu**: 00:11:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Bere aita ebakuaziotik bueltan lanean hasi zen berriro ontziolan. Bi bazkide

izatetik 3 izatera pasa ziren, bere osaba bat ere gehitu zitzaien. Gero eta ontzi handiagoak eraikitzen zituzten eta azkenean zerrategia jarri zuten eurek; hori dela eta, arazoak izan zituzten. Ontziola bera ere handitu egin zuten. Tarte horretan aita hil zitzaien Jualinek 20 urte zituela. Irabaziak hiru bazkideen artean banatzen zituzten, berak ez zuen dirurik ikusi ere egiten.

## 5. Materialak eta erremintak

- **Erref**: LEK-024/006
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:11:48. **Bukatu**: 00:13:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
<p>Soldadutzan Ferrolen egon zen eta baimenarekin herrira etortzen zenean ere beti beharrean jarduten zuen. Ez zuten erreminta eta material onik izaten, baina bere osabak ez zuen berririk erosterik nahi. Bere osabari ezer esan barik erosi zuten beharrezkoa eta horrela egin zuten aurrera.</p>

## 6. Hiru anaien artean aurrera

- **Erref**: LEK-024/007
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:17:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Diruaren balioa asko aldatzen zen urterik urtera. Sasoi batean txarto ibili ziren diruz, baina gero egin zuten aurrera. Hiru anaiak sozio bezala hasi zirenean, autonomoena ordaintzeaz gain gizarte segurantza ordaintzen hasi ziren erretirora begira. Hasieran lepoan eramaten zuten pisu guztia, eta txikituta bukatzen zuen eguna.

## 7. Ezkondu arte diru-kontrolik gabe

- **Erref**: LEK-024/010
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:24:05. **Bukatu**: 00:25:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Hiru anaiak atera zuten aurrera ontziola, baina dirua amak kontrolatzen zuten. Ezkondu zirenean, beraiek hartu zuten ardura hori.

## 8. Zelan itsasoratu baporea

- **Erref**: LEK-024/012
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:25:52. **Bukatu**: 00:28:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Bapore bat errekatik ateratzea, ontziolatik, ez zen erraza. Zelan ateratzen zuten kontatzen du.

## 9. Txapak ordezkatu zuen egurra

- **Erref**: LEK-024/013
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:28:13. **Bukatu**: 00:30:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Ontziolak desagertzen hasi ziren apurka-apurka. Egurraren ordez txapa hasi zen nagusitzen. Gineatik ekarritako egurra erabiltzen zuten. Armazoia haritzarekin egiten zuten eta bragerak eukaliptoaz.

## 10. Buiak uretaratzerako

- **Erref**: LEK-024/015
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:30:16. **Bukatu**: 00:31:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Ontzia uretaratzeko buia handi batzuk erabiltzen ziren, zelan jartzen ziren azaltzen du. Sekula ez zuten arazorik izan.

## 11. Egurra zelan ebaki eta zuzendu

- **Erref**: LEK-024/016
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:31:48. **Bukatu**: 00:35:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Bere aitak-eta lehenengo, motor txikiak eta batelak egiten zituzten. Gero eta handiagoak egiten joan ziren. Egurra zelan ebakitzen eta zuzentzen zuten azaltzen du, suarekin berotzen zuten.

## 12. Armazoiak egiteko plantillak

- **Erref**: LEK-024/017
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:35:01. **Bukatu**: 00:37:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Armazoia egiteko plantillak egurrezkoak ziren. Zelan egiten zituzten azaltzen du. Armazoi bakoitzak bere plantilla zuen, 40-45 ezberdin. Armadoreak erabakitzen zuen baporearen tamaina. Gaur egungoak, txapazkoak, neurrira egiten dituzte kanpoan.

## 13. Diru-arazoak, zordun asko

- **Erref**: LEK-024/019
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:38:23. **Bukatu**: 00:39:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Diru-arazoak zituztenean banketxeek ez zieten laguntzen, ontziola kentzeko mehatxua ere izan zuten. Armadore asko txarto portatzen ziren, nahiz eta dirua izan ez zuten ordaintzen sasoiz.

## 14. Lau ontziola

- **Erref**: LEK-024/021
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:40:58. **Bukatu**: 00:41:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Sasoi batean 4 ontziola egon ziren Lekeition: Mendieta, Mendietaren lehengusuak, Egiguren eta beraiena, Murelaga. Zaharrena Mendieta zen. Eurena izan zen sortzen azkena eta baita zarratzen ere.

## 15. Ontziola "costas"ena

- **Erref**: LEK-024/023
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:42:56. **Bukatu**: 00:44:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Ontziola zegoen lurra ez zen beraiena, "costas"ena zen, kanon bat ordaintzen zuten. Bere anaiak erretiratu zirenean zarratu zuten.

## 16. Armazoiak zelan egin

- **Erref**: LEK-024/024
- **Iraupena**: 0:04:09. **Hasi**: 00:44:23. **Bukatu**: 00:48:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Bere aitaren sasoian Kanpezutik ekartzen zuten armazoietarako haritz egurra. Iltzeak galbanizatuak izaten ziren, kresalaren kontrakoak. Iltzeak zelan sartu behar diren azaltzen du. Galafateatzeko kotoia erabiltzen zuten. Azkenik l¡xatu eta margotu egiten zuten. Bermeoko "Erregina zuri" izan zen egin zuten azkeneko ontzia.

## 17. Lekeitiko ontziak

- **Erref**: LEK-024/025
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:48:32. **Bukatu**: 00:49:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

**Laburpena**:
Lekeition egin zituzten ontziak: "Ederramendi", "Agurtza", "Amandarri"... Asko egin dituzte.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-15*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com